



Usurbilgo Udala



Esp.zkia: ID.05 / 2018 - 0325

ALKATEORDEAREN DEKRETUA

ALAITZ AIZPURUA LABAKA; Usurbilgo Udaleko ordeko ALKATEAK, Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 2. Xedapen Gehigarriaren 1. puntuak eta Toki-Jaurbidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 23.3 artikulua xedatutakoaren arabera, honako hau

IKUSIRIK

Aginagako jubilatuen egoitzako tabernaren erabilpena eta kudeaketarako zerbitzu kontratu administratibo berezirako lizitazioa martxan jarri zen Alkatetzako 2018ko uztailaren 11ko 2018/0805 Dekretuz eta iragarkia udal Kontratatzailearen Profilean argitaratu zen. Eskaintzak aurkezteko epea uztailaren 26an amaitu zen eta ez da eskaintzarik aurkeztu.

2018ko uztailaren 27an Kontratazio Mahaiak eginiko proposamena ikusirik,

ERABAKI DUT

LEHENA: Aginagako jubilatuen egoitzako tabernaren erabilpena eta kudeaketarako zerbitzu kontratu administratibo berezia hutsik geratu dela zehaztea.

BIGARRENA: Udal Kontratatzailearen Plataforman horren berri ematea.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera eman dio administrazio-bideari.

ERREKURTSOAK

- Erabaki honen aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertzeko errekurtsua aurkez dezake urriaren 1eko Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera Alkatetzaren aurrean. Eskatzaileak hilabeteko epea dauka horretarako: erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrerako hilabete osoa.

- Bestela, erabaki hau berraztertzeko eskatu orde, edo berraztertzeko errekurtsuaren erantzunaren aurka joko balu, zuzen zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake. Interesatuak bi hilabeteko epea dauka horretarako, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtsua aurkeztekotan Gipuzkoako Kontentzioso-Administratiboetarako Epaitegira jo behar da. Bestaldetik, birjarpen errekurtsua erantzun gabe utziko balu Administrazioak, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsua, berriazko araudiaren arabera presuntziozko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.



Usurbilgo Udala

Honela jasota gera dadin behar diren ondorioetarako, agindu eta izenpetzen duena ordezeko Alkateak, eta nik, Idazkari orde naizen honek, ziurtatua. Usurbilen,

ORDEZKO ALKATEA
Alaitz Aizpurua Labaka

2018 ABU. 21

Nire aurrean
IDAZKARIAORDEA
Olatz De Miguel Arnaiz

